

# iruner

183. zenbakia. 2010eko ekaina



Gipuzkoa  
Telebista  
Txingudik  
jaietako  
programazio  
berezia  
eskainiko du



Jose Angel  
Sodupe:  
"Real Unionek  
ikusleak kendu  
dizkigu"



Ziurta ezazu Gipuzkoa Telebista Txingudiren  
seinalea LTDz jaso dezakezula

**Ez galdu sanmartzialak!!**

# irunero aldizkaria non eskura daiteke?

## ANAKA

ANAKAKO KASINOA  
KUTXA  
BURDINDEGIA (Kutxaren  
aldamenean)  
ANAKAKO A. ELKARTEA  
BIDASOAKO OSPITALEA  
**BELASKOENEA:**  
TXIMISTA TALDEA  
(Parrokian)  
BELASKOENEAko Auzo.  
Elkartea

## ARBES eta PALMERA- MONTERO


VICTORIA TABERNA  
(Altzukaitz)  
PALMERAKO HAINBAT  
KAFETEGI-TABERNATAN  
**BEHOBIA eta ARTIA**  
HIZKUNTZA ESKOLA OFI-  
ZIALA  
TRINKETE TABERNA(M<sup>a</sup>)  
Juncal Labandibar kalean)  
AZKEN PORTU Kiroldegia  
KUTTUNA HAUR ESKOLA  
**ERDIALDEA**  
HERRI JAKINTZA  
BRASIL Gozo-denda  
ELKAR liburudenda

OSKARBI Liburudenda  
EUSKADIKO KUTXA  
(Kolon)  
KUTXA(Kolon)  
JUBILATUEN ETXEA (Luis  
Mariano)  
VIRGINIA Kafetegia  
SIRIMIRI taberna  
KUTXA (Gipuzkoa hiribid.)  
KIOSKO 33 (Argentinar  
Errepublikan)  
HAZ-SAC  
FOTOKOP (Foruen karrika)  
GAZTE INFORMAZIO  
BULEGOA (Foruen karrika)  
EUSKARA Arloa (Foruen k.)  
ACUBI (Foruen karrika)  
IZOKINAREN KOFRADIA  
(Kale Nagusia)  
ARANO Taberna  
MANOLO Taberna  
SARGIA Taberna  
AEK Euskaltea  
ARTXIBOA eta  
LIBURUTEGIA  
MENDIBILGO MUSIKA  
KONTSERBATORIOA  
ARTALEKU KIROLDEGIA  
**DUNBOA**

TOMA PAN Y  
MOJA (S.  
Pedro)

OSASUN ZENTROA  
KUTXA (Nafarroa hiribidea)  
ERKA (Salvador Etxeandia)  
ALDABE Paper-denda  
**LAPITZE**  
ANBULATORIOA  
AMAIA KZ eta Pio XIIko  
kioskoan  
OGIBERRI (Serapio Mujika)  
EUSKADIKO KUTXA (S.  
Mujika)  
**MEAKA**  
MEAKAko Bizilagunen Elk.  
ERROTARAZ  
OLA Sagardotegia  
**OLABERRIA**  
ESTEBENEA taberna  
LABEKO ETXEA jatetxea  
**ALDE ZAHARRA**  
UDAL EUSKALTEGIA  
ALDE ZAHARREKO BIZI-  
LAGUNEN ELKARTEA  
(Larretxipi)  
EKT (Larretxipi, 12)  
KURPIL KIROLAK  
HAZIA taberna (Peña kalea)  
ESKINA Taberna  
EUSKADIKO KUTXA

(Urdanibia)  
KULTURA Arloa  
(Ospitale zaharra)  
**ANTZARAN**  
NEKANE Paper denda  
Lekaenea k.  
**SAN MIGEL**  
KOLON burdindegia  
(Hondarribia kalea)  
KUTXA (Zubiaurre)  
EUSKADIKO KUTXA  
(Zubiaurre)  
SAN MIGELEko AUZO  
ELKARTEA (Luis de  
Uranzu, 24)  
ATREZZO (Geltoki kalea)  
**SANTIAGO**  
AGUIRRE okindegia.  
CANON (Santiago k.)  
SANTIAGO AUZO  
ELKARTEA  
BIKOTE (Erromes plaza)  
**URDANIBIA**  
JAIZUBIA Taberna  
**KATEA**  
KATEKO AUZO ELKARTEA  
**LARREAUNDI**  
OKINDEGIA (Eguzkitzaldea)  
AUZO ELKARTEA  
LARRARTE Harategia  
(Eguzkitzaldea, 17)



Gabiria kalea, 15 - 179 Katea  
auzoa - IRUN  
Tel 943 63 16 32 Faxa 943  
63 16 02

- SONORIZAZIOA
- ARGIZTAPENA
- GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ERREALIZAZIOAKO  
PLATOAK

- BIDEO-ZINEMA-  
PUBLIZITATEA
- BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- PANTAILAK



TOKI ONA BHI  
BERA - NAFARROA

2010 / 2011 IKASTURTEA

MATRIKULA UZTAILEAN. ORAINDIK GARAIZ ZAUDE

## LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

Industria elkipoen mantentimenduan  
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Makineria eta linea-eroanbideen instalazioa  
eta mantentimendu elektromekanikoan  
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



Tel: 948 625 000

e-mail: [esbera@pnre.cfnavarra.es](mailto:esbera@pnre.cfnavarra.es)

http://irati.pnre.cfnavarra.es/estokiona/



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

**Helbidea:** Salis hiribidea, 21 - behea. 20304  
IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77  
[irunero@infotxingudi.com](mailto:irunero@infotxingudi.com)  
**Argitaratzailea:** TB S.L.  
**Erredakzioa eta maketazioa:** Ana Grijalba.  
**Kolaboratzailea:**

Mikel Asurmendi  
**Zuzentzailea:**  
Xabier Kerexeta.  
**Inprimategia:** Antza  
**Tirada:** 3.500 ale  
**Lege gordailua:** SS-230-94  
ISSN: 1134-0606

- 4.- **Lapikoan:** Sanmartzialak barrutik
- 9.- **Lapikoan:** Koadrilen festa eguna
- 10.- **Aurrez aurre:** Yurre Ugarte, gidoigilea eta idazlea.
- 12.- **Kirolak:** Jose Angel Sodupe, Bidasoa Irun eskubaloi taldeko presidentea
- 14.- **Lapikoan:** Gipuzkoa TB Txingudiren sanmartzialetako programazio berezia
- 16.- **Alarde Tradizionaleko kantinerak**
- 19.- **Bi hitzetan:** Berri laburrak
- 22.- **Kuttun gabinete psikopedagogikoa:** Pubertaroa (I)
- 24.- **Eleak iruten**
- 25.- **Lerroz leerro.** Ospitalekoak. Mikel Antza
- 26.- **Sanmartzialetako egitaraua**
- 28.- **Gazte Informazio Bulegoko berriak.**
- 31.- **Alarde Mistoko kantinerak**

## OLAIZOLA

## Immobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17  
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: [inmolaizola@euskalnet.net](mailto:inmolaizola@euskalnet.net)

API 316

Salmenta  
Alokairuak  
Promozio berriak  
Aholkularitza

# Zuri, gorri eta beltzez

Jakina, milaka dira sanmartzialak barru-barrutik bizi dituzten irundarrak. Orriotara ekarri ditugunak horien ordezkari izan litezke.

## ALARDE TRADIZIONALA

### *Goiburutarrak*: sanmartzialak zainetan

Aranburu anaiek Ama Xantalen konpainian desfila-tzeari utziko baliote, bai nabarituriko litzatekeela! Hona datuak: *Goiburu* goitizenez ezaguna da 12 anai-arrebek (8 gizon eta 4 emakume) osatutako familia. Hasierako esaera gehitxo esatea bada ere, ziur neurrikoa dela Ama Xantalengo iturri ondoan familiak duen etxea sanmartzialetan auzoko erreferente bihurtzen dela. “Egun horietan gure etxea eromena da: beti daude mota guztietako gonbidatuak. San Martzial eguneko hamaiketako egitera 100 senide ere biltzen gara!”

Aita jaizale amorratua zuten aranburutarrek. “Bai, San Juan sua piztu orduko jai hasten zen guretzat”. Ekainaren 30eko sentipenen

Joaquin “Bimbo” Aranburu, Ama Xantalengo soldadua



Aranburu Estonba 12 anaia-arrebak.

inguruan mintzatzean, *Bimbori* zoriontasuna hitza datorkio burura. “Batez ere familian kantinera bat izan dugunetan”. Horretan ere

kopuruak ez dira makalak: 2 arreba eta, aurtengoarekin, 4 iloba kantinera joandakoak dira. Ezbairik gabe sanmartzialak zainetan daramatzate.

## “Dianan betiko lagunak elkartzen gara”

*Buenos Amigos* konpainiaren izena Alardea azaltzeko baliatzen du Javierrek. “1966an desfilatzen hasi nintzenetik Diana entzuteko betiko nire lagun onekin hitzordua izan dut, eta dut, oraindik ere. Irundik kanpo ikasten ari ginen garaiko oroitzapen bereziki politik dauzkat; nahiz eta urte osoan elkar ez ikusi, San Martzial eguneko goizeko 6etan San Juan plazan biltzen ginen”. Aurten ere ez du han huts egingo, ezta San Martzial mendira igotzea, ezta Kale Nagusia jaistean emozio-natzea ere. Eguna amaitzerako, datorren urterako zita jarrita izango du lagun onekin.

Javier Illera, Buenos Amigos-eko idazkaria



Arantxa Lekuona, kantinera 1985ean



## “Oraindik oilo ipurdia jartzen zait”

“Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet nire alde bozkatu zuten guztiei”. Bentaseko kantinera aukeratu zuten egunean Arantxari oparirik ederrena egin zioten. “Beti alardezalea izan naiz, baina barrutik bizitzea zer den ezin da irudikatu”. Bereziki gogoan du San Martzial eguneko egun-sentia, konpainia Kale Nagusitik behera zihoala zain zegoen sekulako jendetzarekin lehenbizikoz bat egin zuen unea, garai hartan entseguak auzoan egiten zituzten eta. “Albo banatan Peio eta Bixente anaiak nituen. Ikaragarria izan zen. Oraindik oilo ipurdia jartzen zait”. 25 urte igaro diren arren, oroitzapen oro atzo bizi izan balitu bezain garden iltzatuak ditu. “Ohore handia izan zen eta beti eskertuko dut”.

## “Jeneralak bere languntzailea izatea proposatu zidanean emozionatu nintzen”

**2**009ko abenduaren 16an Asier esnatu zenean, egun arrunta zeukan aurretik. Oheratu zenean, egun aparta abaildua zen. Tailarrera sartzean, harriduraz ikusi zuen Satur Ibergoyen bertan zegoela.

- Mesede bat eskatzera nator-kizu- esan zion.

- Bada, nire esku badago, egingo dut- erantzun zion Asierrek.

- Infanteriako nire laguntzai-  
lea izan nahi duzu?

“Buf! Begiak malkotan nituen, ezin erantzun. Oraindik ere emozionatzen naiz une hura gogoratzean!”. Kantineara aukeratu berriaren dardara igartzen zaio laguntzai-  
le berriari. Baina, eskaintza erabateko sorpresa izan al zen? “Trailaren 8an komentario bat egin zidaten, baina ez zitzaidan batere sinesgarria iruditu”.

Santiagooko teniente lana utzi eta erronka berria du Asierrek zaldi gainean. Hartara, Urte Zaharreko mahatsak jan aurretik astero zalditegian

**Asier Etxepare, Infanteriako laguntzai-  
le berria**



**Ezkerretik hasita, Ane Diaz, Iñaki Diaz, Gorka Alvarez, Unai Etxepare eta Asier Etxepare.**

entrenatzeari ekin zion. Jantzi hori-gorri dotorea prest du jada etxean, San Martzial egunaren esperoan. Orain, bereziki bi une bueltaka ari zaizkio buruan: Lehenengoa San Pedro egunean Santiagoko konpainiari errebista pasako dionekoa, “bertan lagunak eta familia izango

direlako, ziur emozioak gainezka egingo didala!” Beste unea San Martzial egunean jeneralaren bila laguntzai-  
leak abiatuko direnekoa da. “Minutu pare bat besterik ez. Jende gutxi biltzen da jenerala jasotzeko tokian. Momentu politak izango dira, oso intimoak”.

# Tiempo Unión



**Astelehenetan,  
21:30ean, Gipuzkoa  
Telebista Txingudin.**

Asteartetan, 16:00etan,  
errepikapena

**Aurkezlea:  
Manolo Fraile.**

Aurten primerako futbol profesionala ikusterik izango dugu Stadium Galen.

Gure klubaren inguruko gaurkotasun guztiaren berri emateko, Gipuzkoa Telebista Txingudik Real Union hizpide duen programa berezia prestatzen du astelehenero. Baina informazioa hedatzeaz gain, Tiempo Unión programan taldeari ezinbesteko duen bere herriaren adorea ere ematen zaio.

**Ez galdu!!**



## “Diana entzutea hunkigarria da”

Duela 10 urte Leirek Danborradan desfilatzen zuten estrainekoz, eta harrezkeroztik ez du huts egin. “Lagunek disfrutatzen zutela ikusteak animatu ninduen parte hartzera”. Lau urtez Makilari lanetan ibili ondoren, *partxeaz* musikaren erritmoa markatzeari lotu zitzaion berriro. Hain zuzen, musikarekin lotua dago San Martzial egunean Leirek bizi dituen momenturik politenetakoak. “Diana entzutea oso hunkigarria izaten da. Alardean zehar bereziki gustuko ditut Arrankada eta elizako jaitsiera eta igoera, jende asko egoten delako”. Goizeko Alardearen ondoren, danborrari atsedean emango dio eta ohi bezala koadrilakoekin Estebenea inguruko txabola batean bazkal-

**Leire Zendoia, Danborradako kidea**



Leire Makilari lanetan, makila eskuetan duela.

duko du.

Eguna jai giroan igarotzea da bere desiorik behinena.

## “Desfilatzean asko disfrutatzen dut”

Txikitatik Alardea espaloietatik ikusten zuten, harik eta desfilatzeko aukera izan zuten arte. “Lehendabiziko aldi hartan primeran pasanuen. Ikustea baino dibertigarriagoa izan zen!” Orduetik, Urdanibia plazatik abiatuz desfilatzen du. “Bai, beti, 97an emakumerik gabe alardea egin nahi zutenak Santiago kaletik atera zirenean ere. Ni betiko tokira joan nintzen, aurreko urtean Alardean sartu nahi izan zuten emakumeekiko jarrera oldarkorrek bul-tzatzuta”.

Lehenengo urteetako tentsioa ia erabat gaindituta, Aitorrek asko disfrutatzen du bueltan. Koadrilako lagun gehienak mistora biltzen dira, besteak tradizionalera. “San Martzial egunean lagunak elkarrekin egoteko oztopo bat da, baina gure arteko giroa oso ona da”.

**Aitor Zazpe, soldadua**



Ohi bezala ekainaren 30ean txilibittoa joko du Bidasakoekin, “normaltasuna” nagusitukodenen esperantzaz.



# Koadrilen bazkaria eta olinpiada, ekainaren 26an

Aurten bigarrenagoz, Betti Gotti Euskara Kultur Elkarteak Irungo koadrilei zuzendutako festa eguna antolatu du

Iazko sanmartzialetan ekimenak jaso zuen erantzunak bultzatuta, Betti Gotti taldeak, Irungo Udalaren laguntzaz, 2010eko koadrilei hitzordua jarri die ekainaren 26an.

Goizeko 10:00etatik 12:00etara koadrilen olinpiada jokatu da. Poteoaren ondoren egitarauaren ardatz izango den bazkaria hasiko da. Iazko arrakasta kontuan hartuta, aurten bazkaria Urantzu pilotalekuan egin beharrean Ficoban egingo da, eta guztira 800 txartel salgai jarriko dituzte, iazko 600ak eskas geratu baitziren. “Aurten ere giro izugarri ona izango dugulakoan gaude”, azaldu dute antolatzaileek. Jai giroa gauera arte luzatuko da, Kamiseta Lehiaketaren eta musikaren eskutik.

Herri bazkariko  
txartelak

**Prezioa:** 17 euro  
**EKTn** salgai  
(Larretxipi kalea) ekainaren  
**11n eta 12an.**



Iazko herri bazkaria Urantzu pilotalekuan.

## Egitaraua

- 10:00** Gosaria eta koadrilen olinpiadaren hasiera
- 12:00** Olinpiadaren finala. Hiru sari emango dira: Asteburuko bidaia eta bi afari.
- 12:00** Txaranga poteoa
- 13:00** Ficoban. Tabernaren irekiera
- 14:00** Ficoban. Mahaietan esertzeko aukera
- 14:30** Txupinazoa eta bazkariaren hasiera
- Jarraian, Kamiseta Lehiaketa.** 3 sari banatuko dira: Port Adventurara bidaia, asteburua landa-etxe batean eta afari bat.
- Musika** gauera arte izango da.

**Yurre Ugarte, idazlea eta gidoigilea**

## “Irun fikziorako kokaleku oso ona da”

*Penelope-Enea* telesaileko gidoia, estraineko eta bakarkako lana izanagatik, bereziki du gogoan. Aurrerago, *Goenkale* amaigabeko gidoiburu ere aritu zen. Iragan 20 urteotako jardun profesionalak pantaila izan du helburu; baina ipuin sari batzuk irabazi ondoren, euskal literaturaren plazara agertzera deliberatu du. Emaizta *Gasolindegian* narrazio-liburua izan da. Ipuinak Irunez blai daude; egilea, aspaldi irundar bilakatua.



-Zer sentitzen du idazle batek bere liburua erakusleihu batean ikustean?

Ipuinak duela lau urte idazten hasi nintzen; baina, kontu familiarrrak eta beste zeregin batzuk tarteko, iaz arte ez nituen bukatu.

Azkenean, emaitza ikusten duzunean gogobeteta sentitzen zara. Eskertzekoa da liburua plazara dadin parte hartu duten guztion lana.

- Zure buruari egingo diozun hurrengo galdera zera izango da: nolako harre-

ra izango du?

Kritikarien nahiz irakurleen aldetik izan duen harreraz ez dut kezarik. Irungo Elkarren aurkezpena egin eta handik egun gutxitara ale guztiak saldu zituzten. Gainera, Interneten izan duen oihartzuna oso ona izan da.

- 7 narrazio idatzi dituzu, baina Gasolindegian eleberriat jo liteke.

Bai, ipuinak hari batez lotuak daude, batzuetan nabarmena, bestetan ikustezina. Beraz, ipuinak jarraian irakurriz gero eleberri bat osatzen dutela iriztea ondorio logikoa da. Aitzitik, horrek ez du esan nahi ipuin bakoitzak bere nortasuna ez duenik; ipuin labur batean unibertso oso bat egon liteke.

- Gaiaren aldetik ere badute ezaugarri komuna: gaur egungo paradoxak dira.

Badute abiapuntu komun bat: gaur egungo egoera arruntak. Protagonistak, goi mailako ikasketak burutu ondoren, gasolindegi batean lan egin behar du. Beste pertsonaia nagusia errumaniar etorkin bat da. Biek bizitzaren aurrean daukaten jarrera oso ezberdina da, errumaniarrak ez baitu ezer galtzeko.

- Bizitza egonkorra bilatzen dugu, baina... abenturak beharrezkoak al ditugu?

Zure helburuen bila joan zaitezke, baina, bizitzak jartzen dizkigun frogen aurrean, zer egin? Nire ustez, protagonistak abenturaren bidea hartzen du maiz.

- Narrazioak Txingudiz blai daude.

Kokaleku asko Txingudikoak dira. Esate baterako, pertsonaia nagusia Behobian bizi da, eta Faisai Uharteko gertakari historikoak aipatzen



dira. Iruni, fikzioa kokatzeko, oso antzeztoki aproposa deritzot; asko inspiratzen naiz hemen.

- Lanbidez gidoigilea zara; nolatan iritsi zara literaturara?

Betidanik, pantailarako fikziozko gidoiak idatzi izan ditut. Duela lau urte, ordea, produkzio lanak egiten hasi nintzen. Aurretik ipuin sari batzuk irabaziak nituenez, bada, liburua idaztea erabaki nuen. Helburua testua bera zen lan bat burutzeko gogoan

neukan.

- Gidoigilea zaren arren,

Gasolindegian ez dago elkarrizketarik Agian horregatik justu elkarrizketak baztertu ditut, normalean idatzi izan ditudalako. Idazten hasi nintzenean oso argi neukan helburua testua zela, alegia, literatura. Barne-hizketa ugari agertzen da, ordea.

- Ahots berria ekarri duzu euskal literaturara?

Poztuko ninduke literaturari ekarpenik egin izanak!

- Ipuina bigarren mailako generoa dela uste duzu?

Ezta hurrik ere! Ipuin bat nobela txiki bat izan daiteke. Laburra izateak ez dio kentzen ipuinari ez garrantzirik, ez eta kalitaterik ere.

- Ba al duzu proiekturik?

*Talo eta Lami* izenburua eta pertsonaia mitologiko horiek protagonista dituen marrazki biziduneko luzemetrairen gidoia idazten ari naiz. Bestetik, telebistarako proiektu bat presatzen ari naiz.

Jose Angel Sodupe, Bidasoa Kirol Elkarteko presidentea

## *“Real Union konpetentzia handia izan da Bidasoarentzat”*



Bidasoa Irun eskubaloit taldeak 10. egin du amaitu berri den sasoi honetan; beraz, mailari eusteko helburua erdietsi du. Zaleen babesari dagokionez, berriz, makalago ibili da, Real Unionez eskubaloitari konpetentzia handia egin baitio.

- ¿Denboraldia amaitu berria den honetan, zein da balorazio orokorra?  
Lehenengo itzulia hasieratik ia amaitu arteko tartea oso pozgarria izan zen, play off-eko postuetan egon ginelako. Bigarren itzulian, ordea, atzerago geratu ginen, eta halakoetan taldeak ez

du jokatu ohi igoera edo jaitsiera jokoan duenean bezala; motibazioa eta tentsioa ez dira berdinak.

- Puerto Sagunto bezalako talde indartsuen aurkako partiduak irabazi dituzue, eta ahulenen aurkako batzuk, ordea, galdu. Gorabehera askoko denboraldia izan da.

Bai. Anaitasunaren eta Puerto Saguntoren aurkako partiduak gogoangarriak izan ziren; baina batez ere kanpoan jokatu ditugunetan huts egin dugu. Azken hiruretan ez dugu puntu bat ere eskuratu.

- Denboraldia amaiatu ondoren, zein dira egin beharreko lanak?

Denboraldia amaitzean, lan izugarriko bolada hasten da. Ekainaren 30a baino lehen aurrekontuak itxi behar ditugu, eta datorren sasoi-koak prestatzen hasi. Orain jokalaritalde berria zehazteari ekingo diogu, lituaniar biei izan ezik, gainontzekoei kontratua bukatu zaie eta. Nik azken sasoi honetako *bizkar hezurra* mantendu nahi nuke.

- Hortaz, Etxaburuk eta lituaniarrek taldean jarraituko dute?

Etxaburu ekarpen handia egiten ari da. Bere lana ongi burutzen ari da, batez ere harrobiko mutilen formakuntzan.

Lituaniarren kontratuek indarrean jarraitzen dute. Ez dut ukatuko Malasinkas fitxatzeko interesa agertu duen talderen bat badela. Koxka klausula negoziatzean datza.

- Heldu den sasoioko helburua play offeko postuetan sartzea izango da?

Kirola ekonomikoki panggal dabil, eta are gehiago eskubaloia. Antza denez, zilarrezko kategorian murrizketa izango da joera nagusia. Abenduan, Bidasoa Klubean hauteskundeak egingo dira. Nik kargua uzten dudanerako taldea ahalik eta sailkapen postu hobereetan utzi



nahi nuke. Halere, plantilla osatua dugunean eta beste klubak nola indartu diren ikusita, gure aurreikuspenak egiteko aukera izango dugu.

- Erakundeen diru-laguntzak mantentzen dira?

Bai, kopuruak mantenduko dizkigutela uste dut. Bestetik, babesleekin negoziatzen ari gara.

- Zein da harrobiaren osasuna?

Bidasoak harrobia lantzen du, eta hori nabaritzen hasi da. Datorren aurre-denboraldian gartzetxo mailako 4 jokalarik Ohorezko B Mailako taldean jokatu dute. Etxeko jokalaritasko edukitzea kontu polita iruditzen zait. Bidasoaren kamiseta betidanik jantzi duenak ilusio handiz jokatzen du.

- Zaleek ilusioa dute?

Zaleei babes eskertu behar diet. Irunen eskubaloiarekiko ilusioa ez dela galdu uste dut. Aurten kontrako faktore garrantzitsua izan dugu: Real Union bigarren mailan jokatzeak kompetentzia handia egin digu. Gure partiduek eta Unioneoek topo ez egiten saiatu gara; baina beti ezin izan dugu, eta horrelakoetan, jakina, zaleak ezin dira bi norgehiagoketara joan. Dena den, jarraian jokatu direnean badi-ra futbol partidua amaituta Bidasoa Irunena ikustera etorri diren zaleak. Hori eskertzekoa da.

Ane Sanzberro, Gipuzkoa TBko kazetaria

## “Sanmartzialak ikusi ahal izateko, antena LTDa jasotzeko doitu behar da”

- Gipuzkoa TB Txingudik zer-nolako programazio berezia prestatu du sanmartzialetarako?

Aurten ere, beti bezala, jaietan antolatzen diren ekitaldi guztien berri ematen saiatuko gara. Lehenengo emanaldi bereziak ekainaren erdi aldera hasiko dira: kantineren elkarrizketak. Ondoren, hainbat ekintzaren txanda helduko da: entseguak, jaietako egitarauko ekintzak, kantineren aurkezpena, errebista eta, nola ez, alardeak.

- Eta San Martzial egunerako?

Egun horretan, esan den legez, gureak eta bi egingo ditugu, goizean goizetik alardeak eta alardearen ingurukoak emango ditugulako. Alardeak, beti bezala, zuzenean, eta Alboradak, Dianak eta San Martzialeko lore-eskaintza, erreportajeen bidez. Lan izugarriko eguna da, eta langile askok parte hartzen dugu helburua betetzeko, alegia, jaia etxe guztietaraino eramateko. Horretarako, LTDaren seinalea jasotzeko doiturik eduki behar da antena.

- GTB Txingudik LTDz hedatzen da dagoeneko. Zer moduz doa telebista digitalaren ezarpena?

Ekainaren hasieratik Gipuzkoa TB Txingudi soilik LTDz ikus daiteke. Beraz, nahi duen orok telebistan sintoniza dezake gure seinalea, beste edozein kate bezala. GTB da Txingudiko tokiko telebista bakarra eta, estatu mailako beste telebistek lehentasuna izan duten arren, dagoeneko gure programazioa kalitate ezin hobean eskaintzen ari gara.

- Oraindik jasotzen ez dutenek zer egin



Goian, Ane Sanzberro, eta behean, kazetaria bi kantinereri elkarrizketa egiten.

behar dute?

Oso erraza da. Kanal guztiak berriro sintonizatu behar dira. Gipuzkoa TB Txingudi 20. kanalean dago. Hala eta guztiz ere, seinalea agertzen ez bada, nork bere komunitateko presidentarekin harremanetan jarri behar du, antena egokitu zutenean tokiko telebisten seinaleak ere kontuan hartu zituzten ala ez jakiteko. GTBren seinalea jasotzea hiritarren eskubidea da.

# Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingui LTDz ikusi ahal izateko?

Gipuzkoa TB Txingudik LTDz hedatzen du seinalea jada, eta edonork ikus dezake beste edozein kate bezala.

## **29. KANALA** **FREKUENTZIA: 538 MHZ**

Bizilagunen komunitate batzuek LTDaren seinalea jasotzeko antenak doitu dituzte dagoeneko. Tokiko telebistak ikusi ahal izateko, ordea, ez dituzte oraindik egokitu. Hala ere, hori erraz konpontzen da, eta gastua ere txikia da; baina komeni da instalatzailearen batekin lehenbailehen harremanetan jartzea.


Antenaren doitzea erabakitzeke, ez dabeharrezkoa bizilagunek biler bat egin arte itzarotea. Antenak LTDra egokitzeko erabakia hartu zenean, seinale guztiek barne egon beharko zuten, tokiko telebistenek ere.



Legeak ezartzen du bizilagun guztien eskubidea dela komunitateak LTDko kanal guztiak ikusteko aukera eskaintzea.

Lehenik, sintoniza itzazu zure telebistan edo deskodegailuan LTDko kanal guztiak. Baliteke Gipuzkoa TB Txingudi agertzea, jada hartzen zenuelako, sintonizatu gabe, baina.

Zure telebistan kanala berriro sintonizatu ondoren Gipuzkoa TB Txingudi agertu ez bazaizu, bizilagunen komunitateko presidentearekin harremanetan jarri behar duzu, instalatzaileari dei egin eta antena egoki dezan.





Teresa Azurza Legarda  
Danborrada

# Alarde Tradizio



Josune Navarro Larruqueri  
Musika Banda



Elisabeth Zabaleta Aramburu  
Zaldieria



Iraia Larrauri Unda  
Behobia



Aloña Martiarena Arrizabalaga  
Bentak



Eider Bengoetxea Arruti  
Meaka



Cristina Alberro Agudo  
Bidasoa



# naleko kantinerak 2010



Isabel Asensio Carrasco  
San Migel



Ainhoa Telletxea Vidales  
Olaberria



Amaia Martin Eraso  
Ama Shantalen



Ane Miren Garcia Elizalde  
Anaka



Marta Barandiaran Diaz  
Buenos Amigos



Ainara Ikardo Iriarte  
Uranzu



**Nerea Arias Parra**  
Santiago



**June Rodriguez Bonnal**  
Lapitze



**Beatriz Lara Cid**  
Real Union



**Begoña Huerta Gonzalez**  
Azken Portu



**Ainara Aguilar Behobide**  
Belasko Enea



**Nahikari Soler Cepa**  
Artilleria



**Parque Comercial Mendibil**

**TF:943-63-61-06**

**WWW.fotollor.net**

(también desde la web)



**Album Digital al momento**  
de tus mejores recuerdos  
(Comuniones, Bautizo, Bodas,  
Viajes, Vacaciones etc...)



**Revelado Digital**  
de todos los  
soportes  
y  
tamaños  
al momento

*Zure oroitzapen kuttunen album digitala instantean egingo dizugu  
(kaunartzeak, botaioak, ezkontzak, bidaiak, oporrak eta abar)*

## Bisera urte amaieran eraitsiko dute

Gerra Zibilaren ondorioz Irungo hirigunean hutsik geratu ziren orubeetako batean eraiki zuten gerora *Bisera* izenez ezaguna izango zena. Gerra ondoko saltoki-beharrei erantzuteko sortuta, merkataritza gun txikiak 1943an ireki zituen ateak. Premiazko eta behin-behineko egoeran eraiki arren, denboraren poderioz erreferentziazko toki bilakatu zen, autobus ibilbidearen hasiera eta bukaera zelako eta hitzorduetarako ohiko tokia izaten zelako. Halaber, ezaugarri arkitektoniko bereziak dituzenez, eraikuntza enblematikoa izatera iritsi da.

Urte amaierarekin batera, Udalak *Bisera* eraitsiko du,



*Biseran oraindik bi denda geratzen dira.*

haren orubean auditorioa kokatzeko.

Oraindik aktibitateari eusten dioten bi dendetako nagusiek

itxi beharko dute, ordainik jaso gabe, itxi ere, auzitegiak prekariedade-egoerakotzat jo ditu eta.

## Bertso Jaialdian Irungo zenbait ikastetxetako 300 ikaslek parte hartu dute

Irungo 300 ikasle inguruk parte hartu du Amaia KZn maiatzaren burutu diren 2009-10 ikasturteko Bertso Jaialdian.

Dunboa, Elatzeta, El Pilar eta Belaskoenea ikastetxeetako LHko 4., 5. eta 6. mailetako ikasleak aritu dira bertsoan, eta ikasturte osoan "Ahozkotasuna eta Bertsolaritza" egitasmoaren barruan egindako lana jendaurrean aurkeztu

dute. Lehenengo saioa maiatzaren 20an egin zen, eta bigarrena, 28an.

Bi saioak kontuan hartuta, guztira 300 ikasle inguru aritu dira ordu eta laurdenez.

Proiektu hau aurrera eraman ahal izateko, elkarlanean jardun dute ikaste-txeetako ikasleek, irakasleek, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak eta Irungo Udaleko Euskara Arloak.

## Santiago-Bide Lagunek ekintza arrakastatsuak burutu dituzte maiatzean

Santiago-Bide Lagunen Elkarteko Txingudiko ordezkariak maiatzean zehar *Erromes udaberria* izeneko ekintza-egitaraua arrakastaz burutu du.

Hilabete hasieran, *Ateak Zabalik* Astearen harira, jende ugari Erromesen Aterpea bisitatu zuen. Zinema Astearen balantzea ezin hobea da, Amaia hitzaldi-aretoa egunero jendez bete baitzen. Maiatzaren 23an, Irundik Guadalupera familientzako ibilaldian 90 lagunek parte hartu zuten, giroa aparta izaki. Azkenik, maiatzaren 30ean argazki-ibilaldia-aren txanda izan zen. Eguraldi txarra gora behera, zale mordoska bildu zen. Hilabetean zehar egin den Done Jakue gaiaren inguruko Kontaketa Laburren erakustaldiari dagokionez, antolatzaileek lan kopuru polita aurkeztu dela jakinarazi dute.

Erromesen Aterpean, Aste Santuaz geroztik,



Guadalupera antolatu zen txangoan 90 lagunek parte hartu zuten.

dagoeneko 800 pertsonak hartu dute ostatu. Kopuru hau iazkoa baino handiagoa da, 2010 Done Jakue urtea delako.

## Nayade eta Nayade Txikiren kontzertua



**NAYADE ETA NAYADE TXIKI ABESBATZEK DATORREN EKAINAREN 19AN IKASTURTE AMAIERAKO KONZERTUA ESKAINIKO DUTE, PASIOTARREN ELIZAN ARRATSALDEKO 20:00ETAN.**




## Alkateak bi alardeei ibilbidea adostea proposatu die 98.000 euroko gastua saihesteko

Irungo Udaleko bozeramaleen batzordeak ekainaren 29an eta 30ean San Juan plaza erabili ahal izateko 98.000 euroko kostua (gehi BEZ) ekarriko duten lanak onartu zituen. Erabakiaren alde PSE-EEko, EAJ-PNVko eta PPko zinegotziak agertu ziren, eta EB-Aralar eta ezker abertzalea, berriz, aurka.

San Juan plazan jaietako ekitaldiak burutu ahal izateko, 2.000 m<sup>2</sup>-ko espazioa libre utzi eta asfaltatzearen alde azaldu zen gehiengo, erosoagoa eta seguruagoa izan dadin. Hain zuzen Irungo alkateak, hartutako erabakiaren zergatiak azaltzean, segurtasuna hitza azpimarratu zuen. Bere aburuz, alardeak San Juan plazatik pasa ahal izateak “festa giro baketsuan igarotzeko giltzarri gerta liteke”. Santanok azaldu zuenez, San Juan itxiz gero, beharbada alardeen ibilbideak luzeagoak izango ziren eta, agian, bi desfileek topo egingo zuten.

EB-Aralarreko bozeramale Manuel Millanen esanetan, hartutako erabakia “beharrezkoa ez den lan batean dirua xahutzea da”. San Juan plaza saihesteko beste alternatibak aztertu ez



San Juan-Etxeandia inguruan asfaltatzea erabaki den eremua beltzez agertzen da.

direlakoan dago zinegotzia. Hartutako erabakiak Udaletik kanpo ere erantzunak izan ditu. Alarde Mistoaren Batzordeak asfaltatzearen kontua alardeen aitzakiapean ez egiteko eskatu du. Irungo Hiritar Foroak eta ELA sindikatuak ebazpena gaitzetsi dute eta Interneten ados ez dagoen mugimendu soziala sortu da. Ondorioz, plaza asfaltatu behar ez izateko Irungo alkateak bi alardeetako batzordeei San Juanetik igaroko ez litzatekeen ibilbidea adostea proposatu die.

## 17 autobus-linea Bidasoa eta Oarsoaldea Donostiarekin lotzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du urritik aurrera abian jarriko den autobus zerbitzu berriaren proiektua, Bidasoako eta Oarsoaldeko herriak Donostiarekin eta hiriburuko nahiz Irungo ospitale-zentroekin lotzea helburu duena. Zerbitzua enpresa bakar bati esleituko zaio (gaur egun lau dira), zerbitzua hobetzeko xedez. 17 linea haietatik, 8 Oarsoaldean arituko dira, eta 9, Irunen eta Hondarribian. EuskoTren

eta RENFE trenbideekiko eta inguruetako beste garraio publikoekiko lotuneen hobekuntzak izango dira berrikuntza nagusiak. Halaber, Donostiako nahiz Bidasoako ospitaleekiko lotura hobeak egingo dira; autobusak hiriburura errepide ezberdinetatik sartuko dira, eta auzo berrietan ere geltokiak aurreikusten dira. Gainera, gauze eta udako asteburuetan zerbitzu gehiago eskainiko da.

# Pubertaroa (I)

Badirudi pubertaroa hasteko adina aurrerazten ari dela; halaxe aipatzen du hainbat ikerketak. Gero eta ohikoago da bederatzirteko neskei hilekoa etorri zaiela entzutea. Beraz, pubertaro garaia iritsi aurretik, haurrak aldaketa hauetara prestaturik egoteko, hurrei pubertaroaz eta bertan ematen diren aldaketez hitz egitea komeni da.

Gai hau lantzeko, zenbait galdera eta erantzun helarazten dizuegu. Helduok prest egon behar dugu haurren galderak naturaltasunez erantzuteko, informazioa emateko. Galderarik egiten ez badu, berriz, ondorengo galdera hauek (haiekin irakurriz edo irakurtzeko emanez) balia ditzakegu gaien sartzeko.

## OHIKO GALDERAK:

### Zer da pubertaroa?

Pubertaroa adoleszentziaren lehen aldia da, gorputza forma berri bat hartzen ari den garaia. Garai horretan, gaztetxoaren gorputza umeak izateko (ugalketarako) prestatzen da. Beraz, helduaren sexuazioa garatu egiten da, helduen sexuazio-heltze prozesua hasten da. Gorputzak (gonadek) hormona gehiago isurtzen dituzenez, aldaketa fisiko eta emozionalak ematen dira, heldutasunaren munduan sartzeko aldi berria emanez.

### Zein ezberdintasun dago adoleszentziaren eta pubertaroaren artean?

Pubertaroa adoleszentziaren hasiera da, eta batez ere aldaketa fisikoak ematen diren aldia deitzen dugu pubertaroa. Adoleszentzia luzeagoa da, eta bertan beste aldaketa batzuk garatzen dira, jokae-

ra eta izateko era garatu egiten dira, pertsona heldua izan arte.

### Noiz hasten da pubertaroa? Berdina da neskentzat eta mutilentzat?

Orokorrean, pubertaroa 12-16 urte bitartean ematen da. Hala ere, garai horretan ematen diren aldaketa guztiak neskengan eta mutilengan ez dira modu edo erritmo berdinean ematen; are gehiago, sexu bereko pertsonengan ere modu desberdinetan ematen dira.

Normalean 11-13 urte bitartean hasten da neskengan, eta mutilengan, 12-14 urte bitartean. Hala ere, zenbait neskarengan 9 urtetatik aurrera gorputzean aldaketak ikus daitezke, eta beste zenbaitengan 16 urte bete arte ez da aldaketarik agertzen.

Beraz, argi dagoena zera da, pertsona bakoitza mundu bat dela. Batbedera bakarra eta errepika ezina da eta, beraz, pubertaroko aldaketa hauek ere ez dira modu eta abiadura berean sortzen. Ondorioz, pertsona bakoitzak era desberdinean egiten du bere garapena.

### Zein dira pubertaroan neska eta mutilei gertatzen zaizkien aldaketa fisiko nabarmenenak?

Aldaketak gorputz-atal desberdinetan sumatzen dira, eta emeki ematen dira. Hala ere, batzuetan, gaztetxoak oso azkar ematen direla sentitzen du; beste batzuetan, aldiz, asko irauten dutela iruditzen zaio. Aldaketa hauek guztiek gorputza ugalketarako prestatzea dute helburu, hots, gure





espezia birsortzeko ematen dira. Hala ere, argi utzi behar da ugalketa aukera bat bainik ez dela, eta gorputzaren aldaketa hauek guztiek sexualitatea helduaren ikuspegitik bizitzeko aukera ematen dutela, helduen harreman sexualak bizitzeko bidea irekitzen dela.

**Zer da sexualitatea helduen ikuspegitik bizitzen hastea?**

Sexu organoak garatzen diren heinean, sexu grina edo sexu desira sortzen da. Batean beste pertsona batek erakarria edo hartaz maiteminduta sentitzen gara, eta harekin egon nahi dugu: ukitu, laztandu,

muxukatu... baina lagun eta gurasoekin egin ohi den modu ezberdin batean. Horri erlazio sexualak edukitzea deitzen zaio, helduek plazerra lortzeko duten bidea, hain zuzen.

Erlazio sexualen barnean jolas mota asko egin daitezke, eta horietako bat koitoea edo larrua lotzea da. Larrua jotzen denean mutilak bere zakila neskaren baginan edo bulban sartzen du.

Aipatutako aldaketek gaztearengan galdera eta gatazka asko sor dezakete, eta hori garai horretan oso normala da; hau da, garai horretako ezaugarrietako bat gatazka dira. Gazteengan gatazkak krisialdi bilaka daitezke gai horietaz naturaltasunez hitz egiteko aukerarik ez dutenean. Gazteek sentitzen dituzten kezka, emozio edo sentimendu horiek gorde eta nahasten direnean, gaztea krisialdi batean sar daiteke. Beraz, aprobeitza ezazue edozein momentu naturaltasunez haurrarekin hitz egiteko eta bere burua pubertarorako prestatzen laguntzeko. Zoriontsu bizi!!!!!!

*MAPI URRESTI ORTIZ*

**KUTTUN AHOLKULARITZA**

NESKEN ALDAKETA FISIKO NABARIENAK:	MUTILEN ALDAKETA FISIKO NABARIENAK:
<p>Ileak pubisean eta besazpitan. Izerdi gehiago. Gorputza luzatu eta aldakak zabaltzen dira. Aurpegia aldatu eta aknea sortu. Izterrak eta ipurdia borobiltzen dira. Hormonen eraginez, koipea gorputz atal ezberdinetan pila daiteke. Organo sexualak handitu eta hilekoa hasten da.</p>	<p>Bizarra ateratzen da eta gorputzean ile gehiago sortzen da. Ileak pubisean eta besazpitan. Izerdi gehiago. Gorputza luzatzen da. Aurpegia aldatu eta aknea sortu. Ahotsa grabeago bilakatzen da. Sorbalda zabaldu egiten da eta giharrak gehiago garatzen dira. Zakila eta barrabilak handitzen dira. Isurketak hasten dira.</p>

Azken *Portu* izan dut hizpide udaberri honetan. Artean, udaren atari-atarian, Santiago Zubira egin dut bide. Esateko modua da, Santiago Zubia egunero iraganbide dut-eta.

## Museo bat Santiago zubian?

**E**rromatarrek hiriko *Azken portu* eraiki zutenean, apenas zubirik egongo zen Bidasoaren gainean. Egun sei iraganbide daude Irundik Biriatura bitarte. Hala zenbatu ditut nik berderen. Santiago Zubia da entzutetsuena, naski –San Jakes Zubia ere deitua–.



Santiago Zubia dut hizpide, lagun hori. Nola aldatu den azken 25 urteotan ingurune hori, ezta? Azken urte honetan izan du berrikuntzarik nabarmenena. Badago, dena den, zer berritua. Topo trenbidearen frontierako –edo aduanako– eraikin zaharra, kasu. “Santano no hundas Santiago” irakurri nuen zenbait astetan Santiago merkataritza gunean zintzilikatutako pankarta batean. Aparkalekua berritzen ari ziren eta bertakoei ez zitzairen proiektua atsegin, antza. Bezeroen autoentzako leku gutxi izango ote zen kezkatuta zeuden, nonbait, eta Irungo alkateari dei egin zioten. Ni zur eta lur geratu nintzen: “Hiriko espazio berdeak? Ados denok! Baina gure interesak ukitu gabe, noski?” pentsatu nuen. Nire aukera politikoa ez den alkate baten alde egin nuen nire golkorako. Izan ere, tokia nola geratu den ikusirik, obra egokia iruditu zait. Uneon, berriz, Zubiaren bestaldeko orubearen antolamendu obrak bukatzen ari dira. “*Sancheskientzako* gunea eraikitzen ari dira” izan zen obrari buruz izan nuen lehen berria: “*Monopatin*-en gazte zaleentzako orube hori osorik?” pentsatu nuen. Gunea antolatu dute eta obrak niri iruditu zitzaidan tokiaren erdia hartu du. Beste erdian

–eraikitzen segitzen duten bidegorriaren ondoko–parke egokia egin dute. Halaxe iruditu zait behintzat. Ficoba Azoka gunea baino erakargarriago egin zait Santiagon egin dutena, bidenabar esanda. Alabaina, ez nau guztiz ase ere Santiago Zubiaren inguruokak. Egungo sistema

sozio-politiko ekonomikoaren eredua begitandu zait. Kontsumorako merkataritza gunea dago. Beharrezkoa, bistan da. Gazteen eta haurren kirol guneak, baita aisialdirako parkea helduagoentzako ere. Ondo da. Zer dudan falta? Museo bat. Museo xume bat. *Oiasso*, *Museo erromatarra* nola, bada antzekoa. Xumeagoa ere aski litzateke. ***Arditurri* Meazuloetakoa nola. Halakoxe edo: xumea eta duina. Museoaren gaia: Santiago Zubiaren historia. Frantziako eta Espainiako estatu modernoak eratu zirenetik gaurdaino bitarteko historia. Santiago Zubien gainetik mendetan iragan denaren lekuko Museoa. Imajinatzen duzue Bidasoa gaineko zubien begiek ikusi dutena? 1936ko Gerra Zibila, lehenagoko eta geroko bi Mundu Gerrak, antzinako Karlistadak ahandzi gabe... Horra hor Jose Antonio Santano jaunari proposamena. Ideia ez da nirea. Behinola Hendaiaiko Raphaël Lassalette auzapez sozialista ohiak eman zidan. Museoa Topo trenaren frontierako eraikin zaharraren inguruan eraiki liteke, ezta? Nire proposamen xumea baino ez duzu, alkate jauna.**

**MIKEL ASURMENDI**



Mikel Antzaren *Ospitalekoak* heldu zaigu, zorionez heldu ere. Euskal kausak aktibista bat “galdu” zuen eta idazle bat berreskuratatu du. Mikel Antza preso dago Fresnes-en.

## Errealitate mingots isilduaren lekuko

**M**ikel Albisu Iriarte Fresnesko espetxean dago, eta Mikel Antza idazlea ere bai. Albisu preso dago eta Antza libreago, nonbait. Nobelako protagonista Mikel da. Fikziozko pertsonaia da. Mikelek inoren antza badu, Antzarena du.

Lehenik eta behin, esan dezadan liburua egungo sistema politiko demokratiko zapaltzailearen eta ankerraren salaketa dela, sistema ondo moztortuaren biluztea. Espetxea lantegi, eskola, kaserna eta ospitaleen parean jarri ditu egileak. Idazleak sarreran paratutako Michel Foucault-en aipuak gaztigitzen digunez. Nobelaren hasieran (22. o.) kritika zorrotza dago: “Mintzaldi arranditsuen atzean ezkututzen den traizioa detektatzeko trebatu ninduten 70eko hamarkada amaierako ustezko abertzaleek eta ustezko ezkertiarrek”. Lehen ataletan Mikelek bizi-izan- duen egoerari buruzko autokritika egiten ote duen nago. Zalantza egiten dut, dena den. Hots, “Mikel protagonistaren –eta euskal preso politiko independentistaren bidez- sistemaren aurkako borrokaren autokritika ere ba ote den”, galdetu diot nire buruari. H. D. Thoreau-ren aipua aintzat hartuz gero, bestelako kritika moduko bat ere badago: “Oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko, alferrikakoa da esertzea idazteko”. “...Idazleek liburuetan eskaintzen zizkidaten mundu asmatuak itxuraldatzeari ekin nion” (207. o.) idatzi du Antzak Mikelen eskutik. Liburuaren gakoetako bat lerro horietan daude, nik uste. *Ospitalekoak* –nobela osatzen duten istorioak–



**Liburua:** *Ospitalekoak*  
**Egilea:** Mikel Antza  
**Argitaletxea:** Susa

Antzak Mikel elbarriaren baitatik umore finez ondutako kontakizunak dira.

Mikel protagonista Antzaren trasantua da. Raul Zeliken *Lagun armatua* Nobelako protagonistaren irudia baino hobea du honek, noski. Nor egokiagoa bere burua –ondo ezagutuz gero, noski– fikzionatzeko norbera baino? Ez du bere burua bakarrik asmatu, Xabier agirretarra, Dimitri, Veronique edota Christophe pertsonaiak ere sortu ditu, baita ongi gorpuztu eta osatu ere.

Badu Nobelak baina bat, bere bikote kide presoari egindako eskaintzan islatzen dena: “Maixoli, berriro ibiltzen hasteko

adore emateagatik”. Mikel Albisu *Antza* berriz ibiltzen ahal izateko idatzi behar izan duen nobela da. Ez da desegokia horregatik, ezta ez-duina ere. Haizu da. Bizi duen egoerak eskaini dion gaiaren –eta bitartekoen– arabe-rako nobela da. Euskal munduaren –eta munduarena, orobat– bilakaerak literaturan izan duen aldaketaren isla da nobela. Duela hogeitau urte pentsaezina zen horrela idaztea. Eta horrek, literaturaren ikuspuntu aratz batetik juzkatu, maila apalagoan ipintzen du nobela, nik hala uste, uste apala betiere. Bestelakoan, Mikel Antzak idazteko berebiziko dohainak dituela iruditu zait. Berriz diot, euskal kausak *aktibista* bat “galdu” zuen eta idazle bat berreskuratatu. Etorkizunean ere, errealitatea fikzio bidez horren modu finez eraikitze gogoia opa diot.

**MIKEL ASURMENDI**

A. D. I. ...

**Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.**

### Bekak



- **KUTXAREN DIRU-LAGUNTZAK** atzerrian praktikak eginda-koentzat. 2009-07-01etik 2010-06-30era bitartean Lanbide Heziketako, Unibertsitateko edo Graduondoko praktikak egin dituztenei zuzenduak. Epea: Ekainak 30.

- **KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUEI** laguntza emateko programa. Baldintzak: Ibaetako Campuseko ikaslea izatea, besteak beste. Epea: 2010eko irailera arte. [www.entreprenari.com](http://www.entreprenari.com)

### gaztezulo



Gaztezulo aldizkaria GIBen duzu.

- **UDAKO IKASTAROEN BILDUMA** ESKAINTZEN DIZU GIBEK.

- 1.- EHU-UPVko Udako ikastaroak.
- 2.- Udako Kutxa Ikasgelak.
- 3.- Udako Euskal Unibertsitatea.
- 4.- UNED-BERGARA.
- 5.- Debako Arte Eskola.
- 6.- HIK HASI

- **UDAKO BARNETEGIAK**  
<http://www.ikasbil.net>

-**16 ETA 18 URTE** BITARTEKOA bazara eta zure titulazioa gehienez ere DBHko 4. mailakoa bada, begira itzazu Bidasoa LHIK ikastegiak 2010/2011 ikasturterako prestatu dituen espezialitateak: Sukaldeko-Zerbitzuko langilea eta Ekipo informatikoak mantentzeko langilea. Epea: Ekainak 25. Non: El Espazion eta Irungo nahiz Hondarribiko GIBetan.

### ikastaroak



## harpidetza



[www.igazte.org](http://www.igazte.org)  
Tel: 943 505 444  
943 505 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska irasaiguru, eta astero bidaliko dizugu informazioa sare otxere nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZENAK .....  
HEKIDERA .....  
P.N. .... HERRIA .....  
POSTA ELEKTRONIKOA .....

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pídemelo y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

- **IRUNGO KZ GUNEA**K HAINBAT ikastaro egiteko aukera eskaintzen du.



- **UDAN EUROPA**N LAN EGITEKO asmotan zabilta? Ingalaterra, Irlanda, Suedia, Norvegia... Begira itzazu [Eurosummerjobs.com](http://Eurosummerjobs.com)eko lan eskaintzak!



- **ONZIENTZIA.** Donostia International Physics Center-en (DIPC) 10. urteurreneko ospakizunak direla eta, Elhuyar Fundazioak eta DIPCek zientziaren eta teknologiaren dibulgaziorako



bideo amateurren lehiaketa bat antolatu dute.

Epea: Urriaren 15era arte.

- **MUSEUM CEMENTO REZOLA** Arte Lehiaketa. Donostia. Betebeharrak: 20-35 urte bitartekoa izatea. Edozein arte diziplina onartzen da, artelana parte hartzeko espaziora moldatuz gero. Epea: 2010eko ekainaren 21a.



- **TXINERA** ESKOLAK UDAN, bertako irakasle baten eskutik. Maila guztiak. 606 508668 [lfdongchen@hotmail.com](mailto:lfdongchen@hotmail.com)

- **GAZTELANIA** IKASTEKO AU PAIR gisa lan egin nahi duen eslovakiar gaztetxo batentzat familia behar da, ahal izate-ra 14-16 urteko alaba daukana. 646 209 092. [chameleon\\_75@hotmail.com](mailto:chameleon_75@hotmail.com)

## Musika Jaialdiak



Udaran **MUSIKAKO JAIALDIETARA** joateko asmoa baduzu, kontsulta ezazu prestatu dugun zerrenda!!!

[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)

Jaialdiren bat ezagutzen baduzu eta zerrendan ez badago, iruzkin bat bidali eta erantsiko dugu!



**Gazte Informazio**  
**Bulegoaren udako**  
**ordutegia:**  
**UZTAILEAN,**  
**ABUZTUAN ETA**  
**IRAILEAN: 10:00-**  
**14:00**

# san martzialetakoko egitaraua

## Ekainak 23

11:00 Arizmendi  
Almirantearen plazan, PATATA TORTILLAREN I. MENDIBIL LEHIAKETA

11:30 Behobiko futbol zelaian, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK

19:30 Irungo Atsegiñako eta Bidasoako Txarangako Buruhandiak eta Erraldoiak irtengo dira Urdanibia plaza-  
zatik.

20:00 Agur ofiziala  
Udaletxean.

21:00 Zabaltza plazan, AURRESKUA, suaren inguruan, Kemen dantza taldearen eskutik.

21:45 Alkateak sua piztuko du.

22:00 Urdanibia plazan, MUSIKA, BIZARDUNAK ETA GOSE taldeen eskutik. Atsedendian, ZESENSUZKOA.

## Ekainak 24

11:30 Kateko pilotalekuan, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.

14:00 FICOBAn, BAZKARIA HIRUGARREN ADINEKOEN OMENEZ.



18:00 Urdanibia plazan, HAURRENTZAKO ANTZERKIA-PAILAZOAK.

20:00 Zabaltza plazan, ANTZERKIA. "Tocata y Fuga (en fu renol)" ikuskizuna.

22:30 Pio XII plazan, ZINEMA euskaraz: "Planet 51".

## Ekainak 25

11:30 Dunboa institutuan (Larreaundi), HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.

12:00 IRUN HIRIA-SAN MARTZIAL ERAKUSLEHIO TXAPELKETA.

16:30 Urdanibia plazan, GAZTE-FESTA 2010. Askotariko tailerrak.

18:30 Urantzu pilotalekuan, ESKU-PILOTAKO AFIZIONATUEN 58. KURPIL KIROLAK TXAPELKETA.

20:00 Irungo Argazki Elkartearen lokalean (Foruen kalea 2, behe) SAN MARTZIALEKO XXIV. ARGAZKI TXAPELKETA HERRITARRAren sariak banatuko dira.

20:00 Zabaltza plazan, PAILAZO eta KALE ANTZERKIA.

22:30 Pio XII plazan, ZINEMA: "Percy Jackson y el ladrón del rayo".

## Ekainak 26

8:00etatik 22:00etara, San Martzial mendian, IRRATIZALEEN ERAKUSTALDIA.

10:00 Urdanibia plaza, KOADRILEN OLINPIADA.

10:30etik aurrera, Txanaleta plazan, LORATEGI TRENTAREN ZIRKUITU ERAMANGARRIA.

10:30 Artiako futbol zelaian, EMAKUMEZKOEN II. IRUN HIRIA FUTBOL TORNEOA.

11:30 Antzaran plazan, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.

14:00 FICOBAn, koadrilen HERRI BAZKARIA.

16:00 Artalekun, ARTE MARTZIALETAKO ZENBAIT

DIZIPLINAREN ERAKUSTALDIA.

16:00 Urantzu pilotalekuan, HALTEROFILIAKO XLI. NAZIOARTEKO SAN MARTZIAL TXAPELKETA.

16:30 Zabaltza plazan, VI. BINAKAKO PUZZLE TXAPELKETA.

16:30 SAN MARTZIALEKO IGOERA ATLETIKOA

17:00 ROLL SKI IGOERA ERLAITZERA irtengo da Errotazarretik.

18:00 Antzaran plazan, SAN VICENTE DE PAULEKO MAJORETTEEN emanaldia.

22:00 Santiago kaleko pilotalekuan, DANTZALDIA, Irungo KEMEN DANTZA TALDEAREN eskutik.

22:30 THE MACKENSYS CLAN BAND perkusio taldearen emanaldia Karrika Nagusian.

22:30 Urdanibia plazan, Irungo PLANTA BAJA taldearen kontzertua. Ondoren, REVOLVER.

## Ekainak 27

08:00 MENDIKO IBILALDIKO autobusa irtengo da San Juan plazatik.

09:00 DIANA, Irungo Txistularien Udal Bandaren eskutik, Santiago eta Beraun auzoetan barrena.

09:00 Junkaleko plazatxo-



an, HAURREN. MARRAZKI ETA PINTURA LEHIAKETA.

09:00 Urdanibia plazan, TXIRRINDULARI EGUNA. AIAKO HARRIKO III. ZEHARKALDIA MENDIKO BIZIKLETAREN TXIRRINDULARI PROBA, IBILALDI ZIKLOTURISTA ETA TRIALSIN ERAKUSTALDIA.

12:00 Zabaltza plazan: TANGO.

12:00 Txingudi Tenis Klubean, ekainaren 24, 25 eta 26an jokatu den PADELEKO IX. IRUN HIRIA TXAPELKETAren finalak.

16:00 PIRAGUISMOKO ETA ARRAUNKETAKO HERRI KONTZENTRAZIOA Santiagotarretatik irtengo da.

17:00 Junkaleko plazatxuan, HAURREN XXIII. MARRAZKI ETA PINTURA LEHIAKETAKO sari-banaketak eta JAIALDIA.

19:00 Amaia KZn ZARZUELA, F. Chuecaren "La Gran

Vía" eta "Agua, azucarillos y aguardiente".

19:00 Artiako futbol-zelaian, ALBERTO GORRIZ XI. FUTBOL-7 TXAPELKETA.

22:00 Urdanibia plazan, MUSIKA, TRANSISTORES 50, SIDECARS eta VERBENA SEXTET BAND taldeen eskutik, MEN OF ROCK MUSIKA ELKARTEAREN laguntzarekin.

## Ekainak 28

10:00 "IRUN HIRIA" XII. BINAKAKO IBILALDI NEURTUA, Luis Mariano Pentsiodunaren Etxetik irtengo da.

16:30etik 20:30era, Kolon ibilbidetik eta inguruko kaleetan zehar BIZI... LETRA. Jarduera honen xedea hiritarrak liburutegietara hurbiltzea da.

19:00 Irungo Atsegiñako eta Bidasoako Txarangako BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK irtengo dira Txanaleta plazatik.

23:00 Karrika Nagusian eta inguruetan, BATUKADA: ZOZONGO taldea.

23:30 Urdanibia plazan, MUSIKA, FACE to FACE ikuskizunaren aurkezpena. Omenaldia MICHAEL JACKSON eta ELVIS PRESLEY kantariei.

24:00 Manuel Aznar enba-

xadorearen kalean, CAMP BERBENA.

00:15 Santiagoko Bidegorritik, SU ARTIFIZIALAK.

## Ekainak 29

08:00 Hainbat auzotan, ohiko SAN PEDRO EGUNEKO DIANA, "Irun Hiria" Musika Bandaren eskutik.

08:00 DIANA hainbat auzotan, Urantzuko Dultzaineroen eskutik.

09:30 Kolon ibilbideetik aterako da SAN PEDRO SARIA – XVII. IRUNGO KLASIKOA txirringulari lasterketa.

10:30 UDALBATZAREN jarraigoa San Juan plazatik Junkaleko Elizara joango da. Ondoren, Meza Nagusia. Eskaintzan, Parrokiko Koruak, hiriko beste koruetako kideekin batera, Eslavaren "TU ES PETRUS" abestuko du.

12:00 Junkaleko plazatzuan, AURRESKUA dantzatzuko du UDALBATZAK.

12:30 San Juan Harria plazan, SAN PEDRO EGUNEKO OHIKO KONTZERTUA, Irun Hiria Musika Bandaren eskutik.

16:30 Meakan, ERROMERIA ETA TOKA TXAPELKETA.  
21:00 Txanaleta plazatik, KALEJIRA.



22:00 LASTARGIEN EKINTZAREN OROITZAPEN EKITALDIA. Gipuzkoa hiribideko anbulatoriotik irtenda.

22:00 LOS PEROLAS eta LOS TRANQUILOS fanfarreen irteera.

## Ekainak 30

04:00etan ALBORADA, ohiko tokietan.

06:00 \*VILLARROBLEDOKO DIANA.

\*ALARDEAREN hasiera

12:00 San Martzial mendian, 1522ko Boto Sekularra beteko du Udalbatzak.

Ondoren, Erromeria.

13:00 Meza, San Martzial basilizan.

22:30 Urdanibia plazan, DISKOFESTA, 02:30 arte

\* Udalak antolatzen ez dituen gizarte-ekimenak.

## Uztailak 1

08:00 DIANA, Urantzuko Dultzaineroen eskutik.

08:00 Urdanibia plazan, ABERE LEHIAKETA.

10:00 Urdanibia plazan, TRIKITILARIAK.

11:30 Urdanibia plazan, BERTSOLARIAK.

12:00 Urdanibia plazan, HERRI KIROLA.

13:00 Urdanibia plazan, ABERE LEHIAKETAKO SARIEN banaketa.

18:00 Urantzuko pilotalekuan, PROFESIONALEN PILOTA PARTIDUAK.

18:00 Urdanibia plazan, BIDASOAKO XX. DANTZA SOLTE TXAPELKETA.

22:00 JOSTALLU, ELIZATXO eta GAUERDI fanfarreen irtenaldia.

22:45 Santiagoko Bidegorritik, SU ARTIFIZIALAK.

23:30 Santiago karrikako Euskal-Jai pilotalekuan, BAKARRIZKETEN JAIALDIA. Miguel LAGOren eta Angelito EL LARGOren emanaldia. Zeremonia-maisua: Mario Simancas.

24:00 Txanaleta plazatik, JAIEN AMAIERAKO KALEJIRA. JOSTALLU ETA ELIZATXO fanfarreek parte hartuko dute.

# Alarde Mistoko kantinerak



**Danborrada**  
Luzia Ruiz Visconti



**Banda**  
Ane Lopez Errazkin



**Zaldieria**  
Irati Maiztegi Landa



**Landetxa**  
Irati González Jaimerena



**Bidasoa**  
Nerea Bermudez Alza



**Olaberria**  
Scherezade Delgado González



**Ama Xantalen**  
Ane Gaztelumendi Ruano



**Anaka**  
Amaia Bengoetxea Pérez



**Artilleria**  
Miren Cuadrado Jorje





**Biltegi eta bulegoak:**  
Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria

**Denda:**  
San Francisco, 15 - 20002 Donostia  
San Francisco, 24 - 20002 Donostia  
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia  
Isabel II, 15 - 20011 Donostia  
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria  
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain  
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara  
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

**Erka Osagai Elektrikoak S.L.**  
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea  
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48  
20304 Irun



**- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.**  
**- Lanpara erakusketa.**